

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sanz Lehendakariak Itxako-Reyno de Navarra emakumezkoen eskubaloi-taldea hartu du

*Kluba Champions League txapelketako txapeldunordea, ABF Ligako txapelduna, Erreginaren Koparen txapelduna eta Espainiako Superkoparen txapelduna izan da aurten*

Martes, 17 de mayo de 2011

Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakariak Lizarrako Itxako-Reyno de Navarra emakumezkoen eskubaloi-taldea, klubeko teknikariak eta zuzendariak hartu ditu gaur goizean Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan. Denboraldi honetan, kluba Champions League txapelketako txapeldunordea, ABF Ligako txapelduna, Erreginaren Koparen txapelduna eta Espainiako Superkoparen txapelduna izan da.



Itxako-Reyno de Navarra klubari egindako harrera. Sanz Lehendakaria eta agintariak klubeko jokalariekin, teknikariek eta zuzendariekin.

Sanz Lehendakariak alboan izan ditu Javier Caballero Martínez Gobernuko lehen presidenteordea eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria eta María Isabel García Malo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria. Era berean, ekitaldian egon dira Begoña Ganuza Bernaola Lizarrako alkatea, Juan de Dios Román Seco Espainiako Eskubaloi Federazioko presidentea eta Miguel Bujanda Itxako klubeko presidentea. Azken horiek ekitaldian hitz egiten dute, baita Andrea Barnó taldeko kapitainak ere. ABF Ligako txapeldunen kopa hartu du eta taldeari eta klubaren familiari hitz batzuk eskaini dizkio.

Harreran, Sanz Lehendakariak Club Itxako-Reyno de Navarra klubetik banderatxoa eta eskubaloiko baloia jaso ditu, jokalariek sinatuta.

[Itxako-Reyno de Navarra](#) 1990ean hasi zen lehian. Aurten historiako eta



## Nafarroako

emakumezkoen eskubaloiko denboraldirik onena izan du. Joan den asteburuan Europako txapeldunorde bihurtu zen, eta nazioko lehiaketetan, hiru sariak lortu zituen bigarren urtez jarraian: ligako, kopako eta superkopako txapeldunak. Sarien zerrenda bikaina du. EHF Koparen Europako txapelketan txapelduna (2008-2009) eta txapeldunordea (2007-2008) izan da; txapelketa nazionaletan, 3 ABF liga eskuratu ditu (2009, 2010 eta 2011); Erreginaren 2 Kopa (2010 eta 2011) eta Espainiako 2 Superkopa (2010 eta 2011).

Sanz Lehendakariak ABF kopa Andrea Barnó Itxako-Reyno de Navarra taldeko kapitainari eman dio, García Malo kontseilaria eta Juan de Dios Román alboan dituela.

Ibilbide horri esker, Itxako-Reyno de Navarra taldea kirol-eredua da eta ez bakarrik jolasean bikaintasuna duelako, baita kirolaren esparruan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako erreferentzia delako ere, esparru horretan genero-desberdintasunak oso nabarmenak direla kontuan hartuta. Kluba erreferentzia da esparru horretan, helburu arrakastatsuak lortzeko faktore guztiak biltzen dituelako. Jokalarien eta teknikarien kalitateari, lidergoari eta talde-senari Lizarra herriko zaletasun trinko eta entregatua gehitu behar zaio, alkatea eta udalbatza buru direla, taldeari babes osoa emanez. Horrez gain, sustatzaileek haien ahaleginari esker taldeak aurrera egitea ahalbidetzen dute. Nafarroako Gobernuak proiektu honetan "Reyno de Navarra" marka turistikoaren babesaren bidez parte hartzen du.

Klubak eta taldeak, bihar, asteazkena, maiatzak 18, 18:00etan, zaleei harrera eskainiko die Lizarrako Tierra de Estella-Lizarrerria kiroldegian.